# Bestelako Xedapenak

## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

**612**

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 17koa, Nekazaritza eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearena, azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren babesean 2008ko ekitaldirako diru-laguntzak finantzatzeko diru-baliabideen zenbateko berria jendaurrean jartzekoa. Dekretu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko landa turismoko establezimenduetan inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dira.

2008ko azaroaren 26an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (227. zk.), Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 184/2008 Dekretua argitaratu zen, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautu duena. Dekretu horren xedapen iragankorrean, 2008. ekitaldirako EAEko landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko aurreikusitako diru-laguntzetarako deialdia jasota zegoen.

Xedapen iragankor horren bigarren puntuan zehaztutakoarekin bat etorriz laguntza hauek finantzatzeko eman beharreko baliabide ekonomikoen zenbateko osoa 241.716 eurokoa da; horietatik 74.932 euro LGENFren kargura izango dira eta 166.784 euro, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren kargura.

Era beran, azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren 6.1 artikuluan adierazitakoaren arabera emango diren diru-laguntza guztien zenbatekoak ezin ditu gainditu aipatutako baliabideak edo horiek eguneratzean ezartzen den zenbatekoa, indarrean den legediaren arabera aurrekontuetan aldaketak egitea onartzen bada. Alabaina, zenbateko hori gainditzen bada, Nekazaritza eta Arrantzaren Garapeneko sailburuorde eskudunak ebazpen baten bidez emango du horren berri.

Alde horretatik, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak erabaki du, egin beharreko izapideak egin ondoren, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuan aurreikusitako laguntzetarako kredituak 398.550 eurotan handitzea 2008. urterako; horietatik 275.000 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura izango dira eta 123.550 euro LGENFren kargura.

Aurretik esandakoari jarraiki, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

**612**

RESOLUCIÓN de 17 de diciembre de 2008, del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos, para el ejercicio 2008, destinados a la financiación de la convocatoria de ayudas económicas al amparo del Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula el régimen de concesión de ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Con fecha 26 de noviembre de 2008 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 227 el Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por el que se regula el régimen de concesión de ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuya Disposición Transitoria contenía la convocatoria para el ejercicio 2008 de las ayudas en él previstas y destinadas a la financiación de inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado segundo de la citada Disposición Transitoria, se establece una dotación global máxima de 241.716 euros, de los cuales 166.784 euros son con cargo a los Presupuestos General de la CAPV para el ejercicio 2008 y 74.932 euros con cargo al fondo comunitario FEADER.

Asimismo, en el artículo 6.1 del citado Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, se indica que el volumen total de ayudas a conceder no superará los citados recursos o los que resulten de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente, dándose de esta circunstancia publicidad mediante Resolución de la persona titular de la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero.

En este sentido, la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral ha acordado, previa realización de los trámites oportunos, ampliar los créditos destinados a las ayudas previstas en el Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, para el año 2008, en la cuantía de 398.550 euros, de los cuales 275.000 euros serán con cargo a los Presupuestos General de la CAPV y 123.550 euros serán con cargo al fondo comunitario FEADER.

De acuerdo con lo anterior, conforme establece el artículo 49.2 del Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de

Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.2 artikuluan eta 2007ko uztailaren 23ko Aginduan aurreikusitakoarekin bat etorriz, bidezkoa da adierazitako aldaketa hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hori dena kontuan izanik, honakoa

EBATZI DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautu duen azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuan arautütako diru-laguntzetarako deialdia egin duen dekretuaren beraren xedapen iragankorrean jasotako diru-baliabideen zenbateko berria argitaratzea, 2008ko ekitaldirako. Handitze hori 398.500 eurokoa da; horietatik 275.000 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura izango dira eta 123.550 euro LGENFren kargura. Gehieneko gastua 640.266 eurokoa izango da, eta diru horretatik 441.784 euro 2008. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura izango dira eta 198.482 euro LGENFren kargura.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 17a.

Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordea,
LUIS MIGUEL MACÍAS PEREDA.

noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como en la Orden de 23 de julio de 2007, procede la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la precitada variación.

En virtud de lo expuesto,

RESUELVO:

Dar publicidad al nuevo importe de los recursos económicos destinados a la convocatoria de las ayudas reguladas en el Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula el régimen de concesión de ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, realizada para el ejercicio 2008 mediante su Disposición Transitoria, cuyo incremento asciende a 398.500 euros, de los cuales 275.00 euros son con cargo a los Presupuestos Generales de la CAPV y 123.550 euros con cargo al fondo comunitario FEADER, quedando fijado el gasto máximo autorizado en 640.266 euros, de los cuales 441.784 euros son con cargo a los Presupuestos Generales de la CAPV para el ejercicio 2008 y 198.482 euros con cargo al fondo comunitario FEADER.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2008.

El Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero,
LUIS MIGUEL MACÍAS PEREDA.